

Suzuko Tamura, Japoniako euskaltzain ohorezkoa

Sei urte igaro ostean, Suzuko Tamura Euskal Herrira itzuli da. Oporretan etorri dela dio, aspaldian ikusten ez zituen lagunen berri izatera, euskararen soinua berriro entzutera. Euskal Herria ez da, baina, Suzuko Tamura Europan bisitatu duen herri bakarra, Londresen ere izana baita, Peter Austin unibertsitate irakasleak zuzendu duen mundu osoko hizkuntzalarien arteko jardunaldi batzuetan parte hartuz. Indarberrituta dator Suzuko: “Asko ikasi dut eta nire iritzia zuzena dela ikusi dut, ondo nabilela baieztatu dut. Nire lan egiteko era ez dela okerra konprobatu dut”.

Suzuko Tamura 1934ko urtarrilaren 2an jaio zen, Tokion. Hizkuntzalaria da. Hizkuntzalaritzan doktoratu zen -Linguistika deskriptibo eta historikoa, Fonetika eta Fonologia, Morfologia izan ditu ikerketa-lerro nagusiak- eta hizkuntzalari askoren maistra dugu. Jubilatu arte, euskara eta ainuera eskolak ematen zituen Tokioko Unibertsitatean.

Euskal Herrian ezaguna dugu Suzuko Tamura, euskaraz ikasi eta mintzatzen den japoniarra delako, besteak beste. 1984an, Euskaltzaindiaren X. Biltzarrean, euskarazko esaldien hitzetako ordenari buruzko ponentzia irakurri zuen. 2000. urtean, Akademiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen. Ordurako, Suzuko *Ainhoa* Tamura zen, berak horrela aukeratu baitzuen. Baina nonbait, Suzukok ainueraren bitartez ezagutu zuen euskara.

Hokkaido uharteko ainu indigenen berezko hizkuntza da ainuera eta desagertzeaz zegoen. Hauxe da historia: “Ikasketak amaitu nituen eta tesia egitea erabaki nuen, baina ez nekien zein izango zen tesiaren gaia. Nik japonierari buruz egin nahi nuen, baina ez nuen aurrera egiten. Epea amaitzeaz zegoela, irakasleak esan zidan ainuerari buruz egiteko eta nik onartu egin nuen. Orduan pentsatu nuen urtebete edo emango nuela ainueraren inguruko ikerketa egiten eta gero itzuliko nintzela japonierara. Baina ez naiz inoiz itzuli”.

Guztiak esaten zuten ainuera desagertuko zela. “Ainuera -dio Suzukok- Japoniako hizkuntza bat da. Baina japoniera indartsua da eta ainuera ez. Gerra ostean, japoniera estandar eta bakarra bultzatu zuten agintariek eta elebitasuna ezabatu nahi zuten. Japoniera estandar hori aberatsen hizkuntza zen eta aberatsak indartsuagoak dira edozein lekutan, han eta hemen. Eta arrisku bizian jarri zuten ainuera”.

“Badago esperantza”

Ainuera desagertzeko zorian egon zen, gaur egun ere hala dago, Suzuko Tamuraren esanetan. “Nik ezagutu nuenean, hau zen egoera: haur askok ainueraz hitz egiten zuten txikitan, baina gero ahaztu egiten zuten”. Eskola, bizitza soziala, harremanak... ez ziren egiten ainueraz eta batzuek txikitan ezagutzen zutela ere ahaztua zuten.

Baziren, hala ere, historia ugari, abestiak, ipuinak... “Greziako mitoak izango balira bezala hartzen zituzten”. Baina epika hori guztia bildu eta zabaltzeari ekin zioten. Ipuinak eta kantikak ainueraz idatziak ziren eta hizkuntza berreskuratzeko bide egokia izan zitezkeela pentsatu zuten. “Inork ez zekien horrek mereziko zuenik -azpimarratzen du Suzukok- ezta hizkuntzalariok ere”. Baina ahaleginak arrakasta izan zuen eta urte batzuen buruan, Suzuko hara itzuli zenean, egundoko poza hartu zuen: “Ainuera berreskuratzen hasi ziren. Hizkuntza berreskuratzen ari da. Beraz, badago esperantza”.

Egun batean, japonieraren ikertzaile batek idatziriko liburu bat hartu zuen eta haxe irakurri zuen: japonieraren eta ainueraren artean ez zegoela harremanik, baina Ameriketako indigenen hizkuntzek eta ainuerak bazutela nolabaiteko antza morfoloikoa. Kanadan, inuktitut eskimalen hizkuntza ikasteari ekin zion eta horrek mundu osoko hizkuntzalariak ezagutzeko aukera eman zion, horien artean, euskaldunak eta euskara ikertzen zuten filologoak zirelarik.

Horietako bat Jacques Allières Frantziako Tolosako Unibertsitateko irakaslea izan zen. 70eko hamarkadaren hasieran, munduko herrialde guztietako hizkuntzalariak batu ziren Osakan. Suzukok euskararen berri izan zuen eta poliki-poliki jakin-mina bere baitan piztu zen. Urte batzuk beranduago Kanadara joan zen inuktitut ikertzera, eta euskararekiko interesa handitzen joan zitzaion. Euren arteko antzik ote zegoen, ez zegoen... Alliéresek ainuera ezagutu nahi omen zuen eta Suzukok euskara. “Tolosara gonbidatu ninduen eta ni hara joan nintzen”.

Hori izan zen hasiera. Baionako Euskal Museoko zuzendaria zela, Jean Haritschelhar ezagutu zuen. Gero, Donapaleun hiru asteko ikastaro batean izan zen, ondoren Bizkaian ibili zen... Lazkaon eta Azpeitian ere ikasi zuen, eta azkenik Tokioko Unibertsitatera eraman zuen euskal hizkuntza. Japonian euskararen berri badute eta Euskal Herrian ere aurrera

doa, bere ustez: “Lehen baino askoz euskara gehiago entzuten dut orain kalean, jendearen artean, ume gehienek badakite... Euskarak ez nau kezkatzen, bere etorkizunak ez nau kezkatzen -dio Suzukok-, badakit lan handia egin behar dena oraindik, baina gero eta hobeto dago eta hori bistan da”.

Bilbon, 2007ko uztailaren 2an